

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

**ITZULPENA<sup>1</sup>**

---

Araua: **2006/137/EE ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2006ko abenduaren 18koa, barne-nabigaziorako ontzien xedapen teknikoak ezartzen dituen 2006/87/EE zuzentaraua aldatzen duena.**

---

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik.

---

<sup>1</sup> Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da: «Directiva 2006/137/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 18 de diciembre de 2006, que modifica la Directiva 2006/87/CE por la que se establecen las prescripciones técnicas de las embarcaciones de la navegación interior» (*Diario Oficial de la Unión Europea, L 389/261 de 30/12/2006*)

**2006/137/EE ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA,**

**2006ko abenduaren 18koa,**

**barne-nabigaziorako ontzien xedapen teknikoak ezartzen dituen 2006/87/EE zuzentaraua aldatzen duena**

**EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR  
BATASUNAREN KONTSEILUAK**

Europako Erkidegoa Eratzeko Tratatu eta, bereziki, haren 71. artikuluko 1. paragrafoa aztertu dute,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena aztertu dute,

Kontsulta egin diote alde zuzenetik Eskualdeetako Komiteari,

Tratatuaren 251. artikuluan araututako prozedurari jarraiki <sup>(1)</sup>,

Honako hauek kontuan hartuta:

(1) 2006/87/EE Zuzentarauak <sup>(2)</sup> baldintza harmonizatuak ezartzen ditu, nabigatzeko ziurtagiri teknikoak egiteko, barne-nabigazioko ontziek Europar Batasuneko bide nabigagarrien sare osoan nabiga dezaten.

(2) 2006/87/CE zuzentzarauko eranskinetan jasotako baldintza teknikoek, funtsean, Rhin ibaiko ontziak ikuskatzeko araudiko xedapenak jasotzen ditu, Rhineko Nabigaziorako Batzorde Zentralak 2004an onartutako bertsioan. Rhin ibaian nabigatzeko Hitzarmen berrikusiaren 22. artikuluko xedatutakoari jarraiki, aldizkako maiztasunez berrikusten dira barne-nabigazioko ontzien ziurtagiriak egiteko baldintzak eta xedapen teknikoak, eta teknika berrienak islatzen dituztelako aintzatesten dira.

(3) Eskumen edo gaitasunetan distortsiorik ez sortzeko, eta segurtasun-maila ezberdinik sor ez dadin, komeni da, Europa mailako neurri harmonizatuak sortuko badira, xedapen tekniko baliokideak onartzea, Europako Erkidegoko barne-bide nabigagarri guztien sarerako, eta horiek aldiari behin eguneratzea, neurri horien baliokidetasunari eusteko.

(4) 2006/87/EE zuzentzarauak xedapen tekniko horiek egokitzeko baimena ematen dio Batzordeari; betiere, aurrerapen teknikoari eta nazioarteko erakunde lanen garapenari erreparatzen badie, eta, berariaz, Rhin Ibaian Nabigatzeko Batzorde Zentralaren lana

aintzatesten badu.

(5) Egokitzapen horiek azkar egin behar dira, soilik horien bidez bermatuko baita barne-nabigaziorako Europako Erkidegoko ziurtagiria egiteko beharrezko xedapen teknikoek behar bezala ziurtatutako dutela Rhin ibaian nabigatzeko Hitzarmen berrikusiko 22. artikuluan xedatutako ziurtagiria egiteko eskatutakoaren segurtasun-maila baliokidea.

(6) 2006/87/EE zuzentzarau hau betetzeko neurriak Batzordeari esleituriko exekuzio-eskumenak erabiltzeko prozedurak ezartzen dituen Kontseiluaren 1999ko ekainaren 28ko 1999/468/EE erabakiaren <sup>(3)</sup> arabera onartu behar dira.

(7) Komeni da, batez ere, Batzordeari eskumenak ematea baldintza jakin batzuk finka ditzan, jakiteko nola alda daitezkeen 2006/87/EE zuzentzarauaren eranskinetan ezarritako baldintza teknikoak eta prozedura administratiboak. Neurri horien aplikazioa orokorra izango da, eta beraien xedea, berriz, funtsezkoak ez diren elementuak aldatzea 2006/87/EE zuzentzarauan. Neurri horiek hartzeko, 1999/468/EE erabakiko 5 bis artikuluko xedatutako kontrolpeko araugintzarako prozedura bete behar da.

(8) Eraginkortasun arrazoiak direla-eta, 2006/87/EE zuzentzarauko eranskinak aldatzen dituzten neurriak erabakitzeko, laburtu egin behar dira kontrolpeko araugintza-prozeduren esparruan aplikatu ohi diren epeak.

(9) Aldaketak azkar egin behar direla kontuan hartuta, 1999/468/EE Erabakiko 5 bis artikuluko 6. paragrafoan xedatutako larrialdi-prozedura aplikatu behar da edozein egokitzapen egiteko, bai 2006/87/EE zuzentzarauko eranskinak aurrerapen teknikoetara egokitzeko, bai nazioarteko erakundeek, eta, bereziki, Rhin Ibaian Nabigatzeko Batzorde zentralak egindako aldaketetara egokitzeko, bai eta aldi baterako xedapenak onartzeko ere.

(10) Hortaz, adierazitako ildoa aldatu behar da 2006/87/EE zuzentzaraua.

ZUZENTARAU HAU EMAN DUTE:

*1. artikulua*

<sup>1</sup> Europako Parlamentuaren Irizpena, 2006eko azaroaren 30koa (oraindik Egunkari Ofizialean argitaratu gabea) eta Kontseiluaren Erabakia, 2006ko abenduaren 18koa.

<sup>2</sup> Ikus Egunkari Ofizial honetako 1. orrialdea.

<sup>3</sup> L 184 EO, 1999.7.17koa, 23. or.2006/512/EE erabakiak (L 2000 EO, 2006.7.22koa, 11. or.) aldatu zuen erabaki hori.

# Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Aldaketa hauek egin zaizkio 2006/87/EE zuzentarauari:

1) Paragrafo hauek gehitu zaizkio 19. artikuluari:

«3. Honako paragrafo hau aipatzen den kasuetan, 1999/468/EE erabakiaren 5 bis artikuluko 1., 2., 3., 4. eta 5. paragrafoak, b) idatz-zatia eta 7. artikulua izango dira aplikatzekoak, 8. artikuluan xedatutakoari jarraiki.

1999/468/EE erabakiko 5 bis artikuluko 3. paragrafoa c) idatz-zatian eta 4. paragrafoa b) eta e) idatz-zatietan aipatutako epeak, hogeitau egun, hamabost egun eta hilabete bat izango dira, hurrenez hurren.

4. Honako paragrafo hau aipatzen den kasuetan, 5 bis artikuluko 1., 2., eta 6. paragrafoak eta 1999/468/EE erabakiko 7. artikulua izango dira aplikatzekoak, 8. artikuluan xedatutakoari jarraiki.»

2) Testu hau jarri da 20. artikularen ordeztan:

«20. artikulua

Eranskinak egokitzea eta behin-behineko ziurtagiriei buruzko gomendioak

1. Zuzentarau honetako eranskinak aldatu behar badira, zertarako eta, nazioarteko erakundeek egindako lanen ondorioz, eta, bereziki Rhin ibaian nabigatzeko Batzorde Zentralaren jardueren ondorioz, gaiak izan dituen aurrerapen teknikoetara edo gaiaren bilakaerara egokitzeko, aldaketa horiek 19. artikuluko 3. paragrafoak arautzen duen kontrolpeko araugintza-prozedurari jarraituz egingo dira, bermatzeko, betiere, 3. artikuluko 1. paragrafoa a) idatz-zatiak adierazitako bi ziurtagiriak baldintza tekniko jakin batzuei jarraiki ematen direla, bai segurtasun-maila baliokide bat emateko, bai 5. artikuluan adierazitako kasuak aintzat hartuta. Aldaketa horiek egitea presa handikoa izango balitz, 19. artikuluko 4. paragrafoan araututako larrialdi-prozedura erabil dezake Batzordeak.

Aldaketa horiek azkar egin behar dira, bermatzeko barne-nabigaziorako Europako Erkidegoko ziurtagiria, Rhin ibaian nabigatzeko aintzatesia, emateko eskakizun teknikoek behar adinako segurtasuna ematen dutela; hau da, Rhin ibaiko nabigaziorako Hitzarmen berrikusiko 22. artikuluan adierazitako ziurtagiria emateko eskatzen den segurtasun-maila baliokidea ematen duela.

2. Artikulu honetako 1. paragrafoak araututakoa betetzeko izanda, 5. artikuluko 2. paragrafoan adierazten diren homologazioak egingo ditu Batzordeak; betiere, 19. artikuluko 2. paragrafoa prozedurari jarraiki.

3. Batzordeak, II. eranskinen 2.19. artikuluan xedatutakoari jarraiki, bere iritzia emango du, Komiteak barne-nabigaziorako ontzien behin-behineko ziurtagiriak egiteko emandako gomendioei buruz.»

3) Horrela geratuko da, aldatuta, II. eranskina:

1. Honako testu hau jarri da 1.06. artikularen ordeztan:

«1.06

Aldi baterako xedapenak

19. artikuluko 4. paragrafoak adierazitako kontrolpeko araugintza-prozedura erabil daiteke aldi baterako xedapenak onartzeko, eta, horien bidez, zuzentarau honetako elementu ez-funtsezkoak aldatzeko. Horrela jokaturik, zuzentarau osatu daiteke, baldin eta, barne-nabigazioko garapen teknikora moldatzeko, premiazkoa bada salbuespenak baimentzea zuzentarau honen araututakoari edo saiakuntzak baimendu behar badira. Xedapenak argitaratu egingo dira, eta hiru urteko indarraldia izango dute, gehienez. Estatu kide guztietan aldi berean jarriko dira indarrean, eta prozedura bakarria erabiliko da haiek baliogabetzeko.»

2. Testu hau jarriko da 10.03. bis artikuluko 5. paragrafoaren ordeztan:

«5. Sistema homologatuak izan behar dituzte ur-kantitate txikiak ihintzatzen dituzten sistemak, bai IMO A 800(19) ebazpenari jarraiki, bai aintzatesita dauden gainerako arauak jarraiki. Aintzatespen horiek, zuzentarau honen elementu ez-funtsezkoak aldatzeko egin nahi badira, zuzentarau honen 19. artikuluko 3. paragrafoak arautzen duen kontrolpeko araugintza-prozeduraren arabera onartu behar dira. Homologazioak sailkapen-sozietate aitortuek edo haiek egiteko baimena duten erakundeek egin behar dituzte. Erakunde baimendu horiek laborategian frogak egiteko arau harmonizatuak bete behar dituzte (EN ISO/IEC 17025: 2000).»

3. Testu hau jarri da 10.03 ter artikuluko 1. paragrafoaren ordeztan:

«1. Suteak itzaltzeko eragileak

Makina, galdara eta ponpetako gelak babestu eta suteak itzaltzeko eragileei dagokienez, sua itzaltzeko elementu finko hauek erabili ahal izango dira:

- a) CO<sub>2</sub> (karbono-dioxidoa);
- b) HFC 227ea (heptafluoropropanoa);
- c) IG-541 (%52 nitrogeno, %40 argon eta %8 karbono-dioxido).

Sua itzaltzeko gainerako eragileak erabiltzeko baimena emateko, zuzentarau honen 19. artikuluko 3. paragrafoan adierazitako kontrolpeko araugintza-prozedura erabili behar da, baldin eta zuzentarau honen elementu ez-funtsezkoak aldatu nahi badira.»

2. artikulua

1. 2006/87/EE zuzentarauko 1. artikuluko 1.

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

paragrafoan aipatutako barne-bide nabigarriak dituzten estatu kideek lege-, arau- eta administrazio-xedapenak jarriko dituzte indarrean, zuzentarau honetan xedatutakoa betetzeko. Xedapen horiek, beranduenez, 2008ko urtarrilaren 30ean eman behar dituzte, eta, eman ondoren, berehala eman behar diote Batzordeari horren berri.

Estatu kideek xedapen horiek ematen dituztenean, xedapenek zuzentarau honi egingo diote erreferentzia, edo bestela, erreferentzia horrekin batera egingo da haien argitaratze ofiziala. Estatu kideek ezarriko dituzte aipaturiko erreferentziaren modalitateak.

2. Estatu kideek Batzordeari jakinaraziko diote barne-zuzenbideko zer xedapen onartu dituzten, zuzentarau honek araututako eremuan. Batzordeak gainerako estatu kideei jakinaraziko dizkie aldaketa horiek.

*3. artikulua*

*Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean*  
argitaratutako egunean sartuko da indarrean zuzentarau hau.

*4. artikulua*

Barne-bide nabigarriak dituzten estatu kideak dira zuzentarau honen hartzaile. Bide horiek 2006/87/EE zuzentzarauko 1. artikuluko 1. paragrafoan aipatutakoen modukoak izan behar dute.

Bruselan emana, 2006ko abenduaren 18an.

*Europako Parlamentuaren izenean*  
*Presidentea*  
J. BORRELL FONTELLES

*Kontseiluaren izenean*  
*Presidentea*  
J.-E. ENESTAM

